

txi kitto!



**BADATOR
KORRIKA**



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkartea
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Mainer Aranberri,
Ana Aizpurua eta Eibarko
ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Mainer Aranberri, Ainhoa
Luz eta Ana Aizpurua.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



Gipuzkoako Foru Aldundia

Txis Peak

✓ Zer esaten dio ipur-masail batek
besteari?

- Ez zaitez pasatu marratik!



✓ Kartzelara joan berri den batek
han zegoen beste bati:

- Zergatik zaude hemen?

- Ez didatelako irteten lagatzen.



✓ Bi baserritar hitz egiten ari
dira zelai batean eserita.

- Kontatu nizun oilo batek

kristal zati bat jan zuela?

- Eta zer gertatu zen?

- Txitak betaurrekoekin atera
zirela.

Ariane Arrizabalaga



✓ Tipula batek beste
bati:

- Gizakiek zergatik
hiltzen gaituzte eta
gero negar egiten
dute?



✓ Ume bat bizikletarekin dabil eta esaten dio amari eskuak askatzean:

- Ama! Ama! Eskurik gabe noa!!

Gero hankak kentzen ditu pedaletatik eta esaten dio:

- Ama! Ama! Hanka gabe noa!!

Gero lurrera erortzen da eta esaten dio amari:

- Ma! Ma! Hobik babe babo!! (Ama! Ama! Hortzik gabe nago!!)



Mohamed Dahanni



✓ Amak Laurari:

- Zergatik ez duzu esne hotza edaten?

- Behia ez delako hozkailuan sartzen.

✓ Mozkor bat etxeke atarian zegoela:

- Maria!!

- Zer nahi duzu?

- Etxeko giltzak galdu ditut, bota beste batzuk mesedez!

- Ados!

Eta mozkorrak:

- Bota sarraila ere bai, ez dut aurkitzen-eta!



✓ Egun batean Jaimito eta Pepito hitz egiten hasi ziren, eta Jaimitok Pepitori:

- Pepito, ba al dakizkizu biderketako taulak?


- Ez, nik ez dakit.

- Ez, esaten da "nik ez dakit".

- Eta orduan, ez badakizu, zergatik sartzen zara!

Denborapasak

Bost desberdintasunak



Ander

HIZKI-ZOPA



B	O	L	I	G	R	A	F	O	A	K	J	O	K	▶ Liburua
A	P	R	U	I	T	A	T	A	E	K	P	E	O	▶ Arbela
C	H	O	B	S	L	Z	T	R	R	E	K	S	A	▶ Motxifa
J	L	O	A	I	A	Y	P	K	R	X	A	T	D	▶ Koadernoak
N	L	J	T	P	R	X	A	A	E	O	U	U	E	▶ Estutxea
R	Y	X	L	O	B	Y	U	T	G	J	R	T	R	▶ Erregefa
A	O	K	J	P	E	O	R	E	E	P	U	X	N	▶ Boligrafoak
H	D	B	O	R	L	G	R	A	L	C	B	E	O	▶ Boreagoma
J	B	O	R	R	A	G	O	N	A	R	I	A	A	▶ Arkata
L	R	Y	R	B	R	R	R	R	O	P	L	G	O	

June Simon

PUZZLEA

Moztu laukiak
eta osatu
marraskia

Argazkia



Ane



AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **NORA MUGIKA** izan da. Argazkian duzue saria jasotzen. Liburua eta Coliseoan “ELIRALE” dantza-ikuskizuna ikusteko 4 sarrera eraman ditu Norak etxera. Zorionak!



7 desberdintasunak



**BIDALI ERANTZUNAK APIRILAK 26 BAINO LEHEN.
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA.** Urkizu 11. Eibar.

Izen-abizena

AdinaTel.....

Denborapasak

Hizki-zopa


U	Q	D	O	L	G	I	F	R
B	R	O	Z	Q	O	U	X	G
T	E	D	A	K	R	S	J	I
P	A	C	I	F	R	B	A	S
H	U	T	M	N	I	K	R	B
F	Q	U	D	O	A	J	R	H
M	O	R	E	A	J	S	O	Q
B	E	L	T	Z	A	R	S	B
H	O	R	A	C	I	N	A	S
M	R	N	A	X	A	Q	Z	
G	O	B	B	E	L	T	Z	A

- URDINA
- GORRIA
- HORTA
- BERDEA
- BELTZA
- ARROSA
- MOREA

Jule Aldai


Puntuak jarraitu

Puntuak jarraitu:
ze marrazki ateratzen da?



Bernart

Labirintoa



Lagundu
umeari bere
gozokiak
hartzen

Gorka Vila



IZENAK

Enaitz eta Ane

ABIZENA

Alberdi eta Moreira

JAIOTERRIA

Eibar

JAIOTEGUNA

1988/06/14 eta 1988/04/05

- **Gozoa ala gazia?**

Enaitz: Gozoa. Ane: Gazia.

- **Haragia ala arraina?** Arraina.

- **Uda ala negua?** Uda.

- **Mendia ala itsasoa?**

E: Itsasoa. A: Mendia.

- **Miresten duzun norbait?**

E: Ama. A: Amama.

- **Umetako oroitzapen polit bat?**

E: Igandero amama eta aitxixakin baserrian animalien arteko abenturak.

A: Egun pasak lehengusuekin.

- **Ametsetako oporrak nora?**

E: Irla galdu batera.

A: Oihanean indigenekin esperientzia.

- **Zer 3 gauza eramango zenituzke irla batera?**

E: Lagun bat, laban bat eta sua.

A: Aizkora, pospoloak eta koaderno bat arkatzekin.

- **Birziklatzen duzu?** Bai.

- **Euskara osasuntsu dago?**

E: Nire egunerokotasunean baietz

esango nuke, baina orokorrean ez.

A: Ez oso.

- **Zer egin bultzatzeko?** E: Eguneroko euskaraz hitz egin edonon eta edonorekin. A: Euskaraz hitz egin.

- **Zerk pozten zaitu?**

E: Nire ingurukoak ondo egoteak. A: Jendea pozik ikusteak.

- **Zerk haserretu?** E: Munduan gertatzen diren bidegabekeriek.

A: Injustiziek.

- **Abesti bat?**

E: Sutagarren "Zure albotik urrun banago".

A: "Xalbadorren heriotza".

- **Umetan gehien gustatzen zitzaizun ikasgaia?**

E: Ingurune. A: Plastika.

- **Eta gutxien?**

E: Matematika. A: Erljioa.

- **Nolakoa da zure egun perfektua?** E:

Nire ingurukoekin nagoenean.

A: Maite ditudan pertsonekin

asteburu pasa egiten.

- **Gogoan duzun egunik onena?**

E: Nire ezkontza.

A: Nire iloba jaio zen eguna.

- **Kolore bat?** E: Beltza. A: Grisa.

- **Zenbaki bat?** E: 3. A: 6.

- **Animalia bat?** E: Izurdea. A: Orka.

- **Txistek entzun ala kontatu?**

Entzun.

- **Opariak egin ala jaso?** Egin.

- **Jatekorik gustukuena?**

E: Mariskoa. A: Rape arraina.

- **Gutxien gustatzen zaizuna?**

E: Brokolia. A: Azalorea.

- **Eibarko umeak nolakoak dira?**

Jatorrak, alaiak eta hurbilak.

- **Zer da umeekin lan egitekin gehien gustatzen zaizuna?** E: Transmititzen duten alaitasuna eta poztasuna. A:

Euren poztasuna, nahiz eta egun txarra izan umeek nire alderik alaiena

ateratzen dute.

- **Eta gutxien?** E: Euren artean

liskarrak sortzen direnean. A: Umeren bat alde batera uzten dutenean.

**ENAITZ/
ANE**

Enaitz eta Ane J. Olabe Ludotekako hezitzaileak dira. Zuetako askori ezagunak egingo zaizkizue, nahiz eta argazkian apur bat kamuflatuta egon! 7 bat urte daramatzate lan horretan, umeak hezitzea eta umeekin lan egitea asko gustatzen zaielako, eta euren hitzetan "umeek transmititzen duten alaitasunak eta bat-batekotasunak egun bakoitza berezi egiten dutelako". Etorkizunean ere hezitzaile moduan ikusten dute euren burua.

20. Korrika ate joka dugu

Euskararen alde egiten den mar-txa erraldoia dugu Korrika. AEK Euskaltegi Elkartek antolatzen duen ekimen hau bi urtez behin egiten da eta bi aste inguru behar izaten du lurralde guztia zeharkatzeko. Eibartik, aurten, apirilaren 7an pasatuko da.

Korrikaren 20. edizioak Otxandio eta Iruñea lotuko ditu, martxoaren 30etik apirilaren 9ra. 11 egunez gelditu gabe, Korrikak Euskal Herria zeharkatuko du hogeigarren aldiz. Bi mila kilometro baino gehiago euskararen alde, adin eta mota guztietako milaka partaiderekin, gau eta egun gelditu gabe.

Korrika hasi eta amaitu arte, lekukoa pasatzen da eskuz esku eta kilometro-trozkilometro korrikalarien artean; lekuko horren barruan, euskaldun ezagun batek idatzitako mezu gordetzen da, helmugara iritsi arte sekretuan gordetzen dena. Amaierako



Euria egin arren herriko gaztetxo guztiek bat egin zutenen 19. Korrikarekin orain dela bi urte.

ekitaldian irakurri egiten da mezu hori.

Apirilaren 7an Eibarren sartuko da. Ostirala da, zuok, ikasleok, oporrak hartu berri egongo zarete. Gauetz ai-

legatuko da aurten, 23:00ak aldera, baina hori ez da aitzakia izango eibartar guztiok "tipi tapa tipi tapa Korrika!" ozen oihukatuzeko. Herriko edozein tartetan jar zaitezke lekukoaren atzean korrika egiteko: zuen ikastetxearen tartean, kirol-talde baten tartean... ez dio axola non, inportanteena euskeraren aldeko aldarrikapena egitea da-eta. Aurreko egunean, apirilak 6, berriz, **Korrika Txikian** hartuko duzue parte Eibarko ikasleek.

37 urte dira lehenengo Korrika egin zela. 1980. urtea zen eta Oñati eta Bilbo lotu zituen lehenengo edizio hark. Ordudanik, 19 Korrika eta 37 urte pasa dira.

Ziur gaude, aurten ere, Eibarko kaleak jendez lepo izango ditugula, euskararen aldeko mezuak lau haizetara zabaltzeko.

Tipi tapa tipi tapa...



Aurten ere herriko kaleak zeharkatuko ditu Korrika Txikiak.



URKIZU ikastetxeko 5. eta 6. mailetakoak Arotz Enean izan dira martxoaren hasieran. Euria egin arren, primeran pasatu zuten. Bestetik, 1. mailatik 6. mailara artekoek kontsumo-tailerrak izan dituzte eskolan bertan. 1. eta 2. mailetakoak Oñatiko Natur Eskolan egon dira eta amaitzeko, martxoaren erdikaldetik amaierara arte 2. mailakoen txanda izango da kiroldegiko igeriketa-ikastaroan.

ARRATEKO ANDRA MARI

ikastetxeetakoak hemen gaude, aratosteak amaitu eta lanean buru-belarri. Zein ondo pasatu genuen guztiok! Mila mila esker gurasoei eta jangelako zaintzaileei emandako laguntzarengatik. Martxoaren hasieran ikastetxeko Agenda 21-eko "patruila berdeak" LHko ikasle eta irakasle guztioi hemendik aurrera burutu beharreko ekintzen berri eman zigun. Martxoaren 21ean, Idazleak Ikastetxera programaren barruan, Miren Agur Meabe etorri zitzaigun ikastetxera LHko 1. eta 2. mailetako ikasleekin solasalditxo bat izatera. Irteera pedagogikoak ere hor ditugu: 1. eta 2. mailetakoak Azpeitiko Natur Eskolan izan dira eta apirilaren 4an 5. eta 6. mailetakoak Oñatiko Natur Eskolara joango dira. Apirilaren 3an, berriz, 3. eta 4. mailetakoak Debe Behea ezagutzera joango dira. Eta bigarren hiru hilekoari amaiera ezin hobea emateko, apirilaren 6an, Eibarko beste ikastetxeekin batera, Korrika Txikia izango dugu. Badator Korrika!!!



ALDATZEko LHko ikasleok


martxoaren 17an, ostirala, Astigarragan egon ginen Sagardoetxean. Interesgarria izan zan gure bisita.




3 Txulo ITURBURUN

EITBko 3 Txulo programa gure ikastetxean izan zen. Goizean goiz hasita Ikastolaren toki eta ekintza ezberdinak grabatzea nahi izan zuten. 4. mailakoek errezeta ezberdinak egiten erakutsi zuten. 3. mailakoek, berriz, idazle famatuen olerkiak errezitatu zituzten. Oso goiz polita igaro genuen ikastetxean, programa hau nola egiten den ikusten. Hori bai, denok geunden urduri samar!! Aipatu behar dugu zein jatorra den Ixabel aurkezlea, telebistan agertzen den modukoa. Ikasle batek bidali zuen grabaketa egiteko eskaera. Ondoren,

programako arduradunak ikastetxearekin harremanetan jarri ziren eta jakina, pixkat pentsatu behar izan genuen zer egingo genuen kameraren aurrean. Beste guztia telebistako jendearen eskutan gelditu zen. Zuek ere animatu zaitetzte 3 Txulo programan parte hartzera!!



LA SALLE ISASIko 3. eta 4. mailetako ikasleak Donostian izan dira Euskadiko orkestra sinfonikoa ikusten. Bertan, Romeo eta Julieta txotxongiloak zeuden eta primeran pasa zuten eguna. Martxoaren 6tik 10era Proyde-Proega GK Eren astea ospatu genuen eta kontsumoaren inguruan lan egiten egon ginen. Argentina eta Paraguaiko biztanleei laguntzeko jostailuak, elikagaiak eta dirua bildu genituen eta ostiralean ospakizuna izan genuen. Ikastetxe guztiaren artean tximeleta erraldoi bat osatu genuen eta, amaitzeko, pila bat gustatu zitzaigun "Emaiguu bostekoa" kantarekin abesten bukatu genuen. Martxoaren 16 eta 17an, 6. mailakoak Sastarrainera joan dira artisau-lanak, saskigintza, gure historiaurrea eta abar ezagutzera.



PLATER HEGALARIA

Bat baino gehiago aho zabalik utziko duzue plater hegalaria honekin. Oso erraza da egiteko eta behar dituzuen materialak ere esku eskura izango dituzue.



MATERIALA

- ✓ Paperezko 2 plater
- ✓ Paperezko edalontzi 1
- ✓ Zilar koloreko margo akrilikoa
- ✓ Pintzel lodi 1
- ✓ Artaziak
- ✓ Brometazko bitxiak
- ✓ Periodiko-papera
- ✓ Itsasgarria



PAUSOAK

- 1.- Platerren beheko aldea eta edalontzia zilar kolorez margotuko ditugu eta sikatzen utzi.
- 1.- Periodiko-papera biribildu eta behin margoa sikatu eta gero, plateren artean sartuko dugu, sugea izango balitz bezala.
- 1.- Itsasgarriarekin bi platerak elkartuko ditugu. Edalontzia erditik moztu eta erdian jarriko dugu. Utzi sikatzen.
- 1.- Sikatu eta gero bitxiak itsatsiko ditugu nahi duzuen eran. Eta listo! Zuen plater hegalaria prest duzue espaziora joateko!

Ti-ta!

HARE MAGIKOA

Irina, olio begetala edo jaioberrien olio eta hauts edo olio zoko elikadura-koloratzailea, hori da behar duzuenak. 2 katilu irin eta katilu $\frac{1}{4}$ olio ondo nahastu, eskuekin. Katiluaren neurria ez da garrantzitsua, baina proportzioei eutsi behar zaie. Nahastura oso sikua geratzen bazaizue olio gehiago bota, eta oso bustia gelditu baldin bada irin apur bat gehitu. Kolorea emateko bi aukera dituzue. Koloratzaile hautsa erabili nahi baduzue irinarekin nahastu beharko duzue olio bota aurretik; eta olio zoko koloratzailea erabiltzen baduzue, berriz, olioarekin nahastu beharko duzue irinera bota aurretik. Eta hor duzue, zuen hare magikoa!



HASSELBACK PATATAK

Suediatik datorren errezeta hau asko gustatuko zaizue, ziur nago. Abanikoaren itxura izango duten patatei osagai ugari jarri ahal dizkiozue, baina gure proposamena hau da. On egin!



OSAGAIK (4 LAGUNENTZAT):

- ✓ 4 patata ertain
- ✓ Gurina
- ✓ Oliba-olioa
- ✓ Gatza
- ✓ Ogi birrindua (nahi izanez gero)

PAUSOAK

- 1.- Ondo garbitu patatak eta sikatu.
- 2.- Patata mozteko pausoa oso garrantzitsua da. Hara gomendio bat: jar ezazue patata zulo edo hutsunea duen zerbaiten gainean, koilara bat ere izan daiteke, patataren azpiraino ez iristeko. Moztu patata alde batetik bestera, abanikoaren itxura emanaz.
- 3.- Jarri patatak laberako erretilu batean, kontuz, ez daitezen apurtu. Oliba-olioa bota gainetik eta gatza. Patata bakoitzaren gainean gurin apur bat jarri eta nahi izanez gero ogi birrindu pixkat ere bai. Errezeta osatuagoa egitea nahi baduzue, patata-laminen artean gatza ere sar dezakezue.
- 4.- Sartu labean 200 gradutan, 40-45 minutu, patatek urre kolorea hartu arte.

MARRUBI-TARTA EDALONTZIAN



4-6 baso txikirentzako: 300 gr marrubi, 300 gr gazta-krema, 100 gr gaileta, 100 gr esne kondentsatu, 30 gr azukre, 50 gr gurin eta 2 koilarakada limoi-zuku. Marrubiak zati txikietan moztu, azukrearekin eta limoi-zukuaren erdiarekin nahastu eta utzi estalita 15-20 minutu. Gailetak txikitu, gurin urtua gehitu eta nahastu. Edalontzien oinarrian jarri. Gazta-krema egiteko nahastu esne kondentsatua, gazta-krema eta limoi zukua eta bete edalontziak. Gainetik jarri marrubiak eta haien zukua. Ummmm... ederra!!

Apirilak 1, zapatua

Festara!!! Tomaxen abenturak. 17:00etan Coliseoan. 5€.



Apirilak 28, barixakua

Zezen plazan jolasak LH 3tik 6. mailara artekoentzat, 18:00etan, Jazinto Olabe ludotekaren eskutik.



Apirilak 21 eta 22, barixakua eta zapatua

3x3 Saskibaloia Txapelketa. Izen-ematea apirilaren 7ra arte, LH 5. eta 6. mailak eta DBH 1 eta 2. mailak. Izena emateko www.eibar.eus, 010 edo 943708400 eta Pegoran..

Apirilak 29, zapatua

Zapatuetako Ipuina. **Amona Joxepa**, Patata Tropikala taldearen eskutik. 3 urtetik gorako umeentzat. 18:00etan Umeen Liburutegian.



Apirilaren 24tik aurrera

Li(buru-hausgarriak).

Irakurketa eta ikerketa bateratzen duen joko bat, umeen liburutegian. LHko 2. mailatik aurrerakoentzat. Liburuak irakurri eta gero, buru-hausgarri baten piezak lortzen dira galdera batzuei erantzunez. Puzlean agertzen den irudia zeri dagokion asmatu behar da.



ARIES

Ikasketak: Batuketak ahaztu zaizkizula? Badakizu zer egin. *Maitasuna:* Gustokoa ondoan jarri zaizu. Hartu arnasa eta egon lasai. *Asteko eguna:* Eguaztena.

TAURUS

Ikasketak: Txirula noiz entsaiatu behar duzu ba?? *Maitasuna:* Gurasoak harro dituzu, segi horrela. *Asteko eguna:* Barixakua.

GEMINIS

Ikasketak: Well done! Ahaleginak merezi izan du, ezta? *Maitasuna:* Egun osoa haserre? Bale e? Erlaxatu zaitez... *Asteko eguna:* Martitzena.

CANCER

Ikasketak: Etxekolanak txintxo egiten hasi zara, bazen ordua, oso ondo. *Maitasuna:* Ez utzi laguntxo hori baztertuta, pentsa zu izango bazina... *Asteko eguna:* Barixakua.

LEO

Ikasketak: Oporrak badatozela! Azkeneko txanpa, animo! *Maitasuna:* Gurasoei kaso gehiago egin beharko zenieke; haserretu egiten direla? Normala. *Asteko eguna:* Domeka.

VIRGO

Ikasketak: Zoragarri eta zoragarri! Ez daukat besterik esateko. *Maitasuna:* Irribartsu zaudenetik askoz politagoa zaude. *Asteko eguna:* Zapatua

LIBRA

Ikasketak: Matematiketan kontuz, ez zaitez larregi erlaxatu, ados? *Maitasuna:* Beldurrik ez izan lagunei zuk uste duzuna esateko. *Asteko eguna:* Eguena.

SCORPIUS

Ikasketak: Egindako ahaleginak saria ekarriko dizu. *Maitasuna:* Lagunekin ondo gaudenean ez ondo egoten den, ezta? *Asteko eguna:* Barixakua.

SAGITARIUS

Ikasketak: Ingelesean gehiago ahaleginu beharko zinateke. *Maitasuna:* Maitagarria zara benetan! Ingurukoek badakite hori. *Asteko eguna:* Eguena.

CAPRICORNIUS


Ikasketak: Gelan arreta gehiago jarri beharko zenuke, gero sorpresak datoz. *Maitasuna:* Baztertuta dagoen horri egiozu kaso, eskertuko dizu-eta. *Asteko eguna:* Zapatua.

ACUARIUS

Ikasketak: Gehiago irakurtzen hasi zara eta asko igartzen zaizu. Segi horrela. *Maitasuna:* Lagun ona zara, eta horrek gauza onak ekarriko dizkizu. *Asteko eguna:* Astelehena.

PISCIS

Ikasketak: Fin zabilta e? Txalo bero bat zuretako. *Maitasuna:* Lagunartean harrotu gabe, bale? *Asteko eguna:* Domeka.



URDABURUTARRAK (6 urtetik aurrera)

Album ilustratu honetan familia baten gorabeherak azaltzen zaizkigu. Amak darama etxeko martxa eta hura desagertzen denean... Irudiek pisu handia hartzen dute album honetan; errealismo handiz adierazten dute istorioek gertatzen dena. Hitzek beharrik gabe islatzen dute gizartean oso maiz etxeko andreak bizi duten familia-egoera.



EZIN DUT, ETA ZER? (8 urtetik aurrera)

Aita alabari esan eta esan ari zaio super-neska bat dela. Baina alabak badaki ez dela egia, super-neskek hegan egiten baitute eta berak ez daki hegan. Saiatu da bere indar guztiak, aitari ez huts egiteko, baina ezin du.




PRINTZESA PUZKERTIA (10 urtetik aurrera)

Neskatxa batek arazo txiki bat dauka: puzkerrak botatzen ditu modu kontrolaezinean. Pozik bizi da, ordea, inguruan babestua: azken batean, printzesa bat da, errege-erreginaren alaba. Baina egun batean, Kurdabitximistango printzea ezagutu eta arazo bihurtu zaio puzkerren kontua. Horregatik erabaki du bere gaitza sendatu behar duela. Hortik aurrera, bere bizitza aldatuko duten zenbait abentura biziko ditu.




SILVIARENTZAKO OPARIA (6-8 urte)

Astebete baino ez da falta Silviaren urtebetetze egunerako, eta urduritasunak jota dago neskatxa. Ez du batere zalantzarik; berak argi eta garbi dauka zer opari nahi duen, eta banaka-banaka azaltzen dizkio arrazoiak aitaxori. Hura izango da Silviaren desioak betetzeaz arduratuko dena; hala ere, amesten dugun hori ez da beti guk imajinatzen genuen bezalakoa izaten. Izan ere, urtebetetzeak, bizitza bera bezalaxe, ustekabez beterik daude.



NEMO KAPITAINAREN AZKEN BIDAIA (7-10 urte)

Nadia dut izena, ez dut anai-arrebarik, eta amarekin bizi naiz errepide ondoko pisu batean. Aita ez da gurekin bizi. Baina ez nire gurasoak bananduta daudelako, baizik ezin direlako elkarrekin egon. Nire aita kartzelan dago. Jaio nintzenez ere kartzelan zegoen. Niri ez zaizkit kartzelak gustatzen, hotzak eta zikinak direlako. Nik itsaso zabala maite dut, eta, nire aita non dagoen galdetzen didatenean, Ozeano Barean dagoela esaten dut maiz, urpekari batean, Nemo kapitaina bezala.




MIDASEN ERAZTUNA (10-13 urte)

Xabierri lagunak Midas esaten diote: ez dute oso maite, eta haien gezurren eraginez gizajoari irakasleak asto belarriak ipini dizkio. Gainera, mutikoek lehenbailehen gizondu nahi dute: bizarra hazteko, nesken gogokoak izateko, ahulak baztertze... Baina horretarako Zangozako zubitik jauzi egin behar omen da, eta ibaiak ur handi bulartsuak dakartza... Horra istorioa, baina hori bezain erakargarria da kontatzeko modua, modu animaliatua...

Bitxikeriak



XV. mendean hasi ginen platerak erabiltzen. Ordura arte ogi-xerra potoloen gainean jartzen zuten jatekoa.



Ekaitz-lainorik handiena izugarria izan zen, 16 kilometroko altuera izan zuen. Everest mendia baino ia bi bider altuagoa.



Hartz zuriek eta pinguinoek ez dute sekula elkar ikusiko, lur planetako kontrako aldeetan bizi dira-eta. Hartzak Ipar Poloan, eta pinguinoak, berriz, Hego Poloan.




400 zuhaitz dituen baso batek, urtean, 20 pertsonak arnasa hartzeko adina oxigeno sortzen du.




Gauetz zerura begiratzen dugunean iraganera begiratzen dugu. Izan ere, izar baten argiak urte asko behar ditu lurreraino ailegatzeko. Izar horretatik orain dela milioika urte irten zen argia da ikusten duguna.



Afrikako elefanteek lau hortz besterik ez dituzte, baina nahikoa zaie jatekoa mamurtzeko.



Giza gorputz bakoitzak 100.000 kilometro arteria eta odol-hodi ditu. Bata bestearen atzetik jarritz gero, munduari bi buelta eta erdi emango genizkioke.



Tximino orrolaria zaratatsua da. Bere orroa 5 kilometrora entzun daiteke!



1939an, Ernest Vincentek "Gadsby" izeneko liburua idatzi zuen, eta badakizue zer? 260 orrialdeetan ez da "E" letra bat ere agertzen.



Asteko edozein egunetan estatubatuarren %13k pizza jaten du! Horietatik gehienak 6 eta 19 urte bitarteko ume eta gazteak dira.

MUNDUKO JOLASAK

MIKADO – TXINATAR ZOTZAK – TABUAXRAT

Eskolan, etxean, ludotekan... toki askotan topatzen dugu Mikado jolasa. Jatorriaren arabera izen, material eta tamaina desberdina izaten du jolas dibertigarri honek. Honako izen hauek hartzen ditu lekuaren arabera:

JAPONEN, Mikado.
Jolasteko materiala, zotzak




MAROKON, Tabuaxrat.
Jolasteko materiala, harriak



TXINAN, Txinatar zotzak.
Jolasteko materiala, zotzak



Guk gehien ezagutzen duguna zotzak erabiltzen dituen da. Mahai baten edo lur gainera zotzak botatzen dira eta, jokalariek, txandaka, zotzak banan-banan hartu beharko dituzte, baina gainontzeko zotzak mugitu gabe.





HIRU IKASLE MUSEOAN


Bazen behin, Frantzia hegoaldeko herri txiki bat Le petite izenekoa. Bertan, Asier, Egoitz eta Haizea bizi ziren. Hirurak herriko institutuko ikasleak ziren eta Batxilergoko azken ikasturtea amaitzen ari ziren.

Oporrak iristean, gurasoek, Parisera joateko bidaiaria oparitu zieten hango parajeak eta monumentuak ezagutzeko eta udaz disfrutatzen. Gazteak oso pozik jarri ziren eta halaxe, eguna iritsitakoan, Parisera joan ziren trenez, eta segidan, autobusa hartuta, Disneyland-era. Lehenengo eguna Disneyland-en pasa zuten hango atrakzio guztietan muntatuz eta egun zoragarria igaroz. Bai dibertigarria eguna!!!

Hurrengo egunean Parisera bueltatu ziren eta Louvre Museoa bisitatzera joan ziren. Egiptoko atala ikusteko gogo handia zuten, eskolan lan mordo egin baitzuten gai horren inguruan: altxor ederrak, bitxi ikusgarriak, eskultura erraldoiak, momia misterioitsuak...

Halako batean, Ramses II-aren momiarenean aurrean pasatzen ari zirenean, Haizeak zerbait harrigarria ikusi zuen: Ramses-ek besoa mugitu zuen!!

Atzera joan zirenean lurrean zerbait zegoela ikusi zuten, paper bat zen eta Asier makurtu egin zen hartzeko. Zabaldu zutenean harriturik gelditu



ziren; paper horretan haien institutuko planoak zegoen eta beren gelako planoan gurutze gorri bat agertzen zen. Horretan zarata handia entzun zen eta buelta ematerakoan bai sarkofagoa bai momia lurrean zeuden. Sarkofagoaren atzealdera joan zirenean begiratzera, horman bertan zulo bat zegoela ikusi zuten, eta barrura sartzerakoan trenbide eta bagoitxo zahar bat aurkitu zituzten. Sartu bezain laster bagoitxo martxan jarri zen, gero eta abiadura handiagoa zeraman, azkenean gelditu egin zen.

Bagoitxotik atera zirenean kobazulo zoragarria bat ikusi zuten, eta halako batean, euren oinen azpian zulo handi bat zabaldu zen eta hirurak jausi ziren. Altxatu zirenean konturatu ziren haien gelan zeudela.

- Gurutze gorri honek apalategi azpian markatzen du -azaldu zien Haizeak.

- Jakin behar dugu zer dagoen, apalategia mugituko dugu -arrazoitu zien Egoitzek.

Apalategia mugitzerakoan paper bat aurkitu zuten, eta hitz batzuk idatzita zeuden:

“Kaixo, zuen irakaslea naiz. Jakin nahi izan dut ea abenturazaleak zareten eta enigmak gustatzen zaizkizuen. Paper hori aurkitu baduzue enigmaren amaierara ailegatu zarete. ZORIONAK!”.

Nerea Fernandez

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.
MEREZI DU...



zu margolari!